



Inma ERREA

Iruña, nabarra, Iruñean hogeita borts urte liburua, 1997,
Arturo Campion Kultur Elkarte IKA (Olerkia / Poema)

Literatura eta Harrikoa, 2003, Pamiela (Saiakera /
Ensayo)

Irria irrika, Carlos Etxeberriaren konposizioa, 2004, 2.
saria, Baionako Kanta Berri lehiaketan (Kanta / Canción)

Bidaia, 2005, Nabarra aldizkaria (Ipuina /Cuento)

JKR, leizeetako eskualdean Lauburu, Pirinioetako
Kontakizunak – Relats dels Pirineus bilduma, 2006, EIE –
Proa (Ipuina /Cuento)

La literatura en la vida. ¿Por qué escribir?*

Inma ERREA

Virginia Woolf dijo que nadie pide a los escritores que escriban, que tanto el hecho de que escriban como sus obras mismas no son imprescindibles para el mundo, que el mundo sigue girando igual sin sus creaciones.

Woolf tenía razón.

148 Escribir es algo personal, absolutamente ligado al espíritu de cada cual, e inducido por los impulsos que surgen de su interior. Así es como yo siento la disposición a escribir. Y eso tiene poco que ver con las circunstancias externas. Evidentemente, si no hubiera aprendido a escribir, y antes a leer, no podría escribir como lo hago, y tendría que buscar otra forma de exteriorizar el constante impulso que surge de mi interior. Estoy segura de que encontraría el modo de hacerlo. Incluso ahora, a veces, cuando las circunstancias me limitan la posibilidad de escribir (y eso me ocurre más a menudo de lo que quisiera), siento la misma necesidad de hacerlo, el deseo de exteriorizar, estructurados de alguna manera, los sentimientos, ideas y propósitos que surgen en mi interior. Porque eso es para mí escribir, la voluntad de expresar la visión del mundo y la vida que cada cual desarrolla, su manera de enfrentarse a ellos, y sobre todo, la tendencia a estructurar y a mostrar ese conjunto de sentimientos, pensamientos e intenciones que, como un magma informe, crecen en cada cual, para compartirlos, y corroborarlos, con el mundo, con cada hombre y cada mujer.

Todo ello es una necesidad personal de quien escribe, no algo que el mundo o alguien le haya pedido. Pero, precisamente, la literatura es interesante porque nadie obliga a escribir a los escritores y escritoras. Y lo es no sólo para quien escribe, sino también para el resto de la gente. La literatura —y cualquier otra disciplina que implica creatividad—, por sus propias condiciones intrínsecas, es un ámbito adecuado para servirse de la libertad, para practicarla. En mi opinión, uno de los más adecuados. La dictadura más dura no puede impedir a una persona escribir (otra cosa serán los obstáculos que existan para editar lo escrito), y quien ha tomado la firme decisión de hacerlo, si no puede escribir en papel, lo hará en su interior —de memoria y de corazón—. Y cuando un escritor o escritora se vale así de la libertad, brinda a las demás personas la oportunidad de ampliar los límites de su libertad. Es una cadena: alguien escribe algo libremente, y otras personas lo leen, y poco a poco lo que al principio no era más que una percepción surgida en el interior de una persona aislada, recorre su camino en el mundo, y al tiempo que lo recorre abre nuevos caminos a las percepciones individuales de otras personas, y cuantas más percepciones surgen, más posibilidades hay y más libertad

* Traducción realizada por Martín Saragüeta González. Biblioteca Pública de Aurizberri / Espinal

Literatura, bizitzan. Zergatik idatzi?

Inma ERREA

Virginia Woolfek esan zuen inork ez diela eskatzen idazleei idazteko, haiek idaztea eta haien lanak ez zaizkiola ezinbestekoak munduari, munduak berdin-berdin egiten baitu aurrera idazleek idazlanik ekoiztu gabe.

Arrazoia zuen Woolfek.

Zeregin pertsonala da idaztea, norbere gogoari arras lotua, norbere baitan sortzen den bulkadak eraginda. Nik hala sentitu izan dut idazteko joera, beti. Eta horrek zerikusi gutxi du kanpoko inguruabarrekin. Jakina, idazten, eta aurretik irakurtzen, ikasi izan ez banu, honezkero ezin izanen nuke idatzi, baina beste modu batean adierazi beharko nuke ene baitatik kanpora ateratzeko bultza eta bultza etengabe sentitzen dudana gogo. Seguru nago aurkituko nukeela hori egiteko modua. Orain ere, batzuetan, idazteko aukera arras mugatuta daukadanean (eta hori nahi baino maizago gertatzen zait), beti bezain bizirik sentitzen dut idazteko beharra ene baitan, ene barrenean pizten diren sentipenak, ideiak eta asmoak nolabait egituraturik irtenarazteko jaidura. Hori baita niretzat idaztea, nork mundua eta bizitza ikusteko bere manera, horiei aurre egiteko otutzen zaizkion irtenbideak eta, batez ere, bere golkoan magma itxuragabe baten antzera igartzen duen sentimendu, pensu eta gogoen multzo hori egituratu eta kanporatzeko gana, horiek guztiak munduarekin eta gainerako gizon-emakumeekin partekatu eta egiaztatzeko.

Hori guztia behar pertsonala da, ez munduak ez beste inork eskatzen ez duten zerbait. Baina, hain zuzen ere, idazleak inork idaztera behartzen ez dituelako da interesgarria literatura, ez soilik idazten dutenarentzat, baizik gainerako guztientzat. Literatura —eta sormena dantzan jartzen duen beste edozein ataza—, berezko dituen baldintzengatik, askatasuna baliatzeko eta lantzeko eremu aproposa da, aproposenetako bat, ene iritziz. Diktadurarik gogorrenak ezin dio eragotzi pertsona bati idaztea (beste kontu bat dira idatzitakoa argitaratzeko oztopoak), eta paperean ezin badu, bere baitan idatziko du —buruz eta bihotzetik— horretarako erabaki irmoa hartu duenak. Eta idazle batek askatasuna hori baliatzen duenean aukera ematen die besteei, gainerako gizon-emakumeei, haien askatasunaren mugak zabaltzeko. Kate bat da: norbaitek zerbait idazten du, aske, eta beste batzuek hori irakurtzen dute, eta poliki-poliki hasiera batean banako soil baten baitan zegoen pertzepzio horrek bidea egiten du munduan, eta bide hori egiten duelarik bide ematen die, aldi berean, beste banakoengan sorrarazten dituen pertzepzioei, eta zenbat eta pertzepzio gehiago, aukerak gehiago dira, eta askatasuna handiagoa. Katea arbola bilaka daiteke, ideia bakoitzetik beste batzuk sortzen baitira, eta gizon-emakumeek errealitatea aldatzeko aukera gorpuzten da horrela. Eta aldatu ahal izateko aukera askatasun-bidea da berez.

se logra. La cadena se puede convertir en un árbol, porque de cada idea surgen nuevas ideas, y se materializa la posibilidad de que hombres y mujeres cambien la realidad. Y la capacidad de poder cambiar es un camino de libertad en sí mismo.

Empecé a escribir con diez u once años. No estoy muy segura, pero unos pocos años más tarde encontré, en el cuarto de estar de casa de mis padres, un papel fechado en 1971. Estaba en el interior de una botella decorativa de porcelana (mi padre trabajaba en una fábrica de porcelana y en casa teníamos muchos adornos de ese tipo). Creo que era un poema, y la razón de que estuviera en aquella botella era que quería ocultar lo que escribía, porque entonces me daba vergüenza que alguien leyera mis cosas. Escribía en castellano, porque entonces no sabía escribir en euskera.

Desde entonces no he parado de escribir, aunque en muchas ocasiones no me prodigue demasiado. Pero siempre escribo algo, aunque no sea más que unas pocas líneas. Sueño con seguir escribiendo y con poder escribir más.

Ahora escribo en euskera, porque en euskera es como más cómoda me siento al escribir.

La pasión por la lectura

Escribir me ayuda a aclarar las ideas sobre el mundo, y leer también. No creo que se pueda escribir sin leer. Un escritor, ante todo, es un lector. La lectura abre las puertas a la escritura.

150

Aprendí a leer con cuatro años recién cumplidos, y me pareció que el mundo se hacía más grande. Me enseñó la abuela, la madre de mi madre, en Zilbeti, y aprendí rápido, porque me pareció algo realmente atractivo. Llegué a la escuela sabiendo leer. En opinión de mi abuela, su nieta no podía ir a la escuela sin saber leer. Creo que a escribir aprendí en la escuela, pero no recuerdo cómo ocurrió. Sólo recuerdo que era bastante torpe con el bolígrafo y que volvía a casa sucia de tinta. Y que, como ahora, tenía mala letra. Eso sí, la maestra empezó pronto a felicitarme por mis redacciones. Escribía bien, y eso se debía a que leía mucho.

Mi afición por la lectura siempre ha sido grande. Creo que lo he heredado de mi padre. Aunque mi padre sólo tenía estudios elementales leía mucho, y en su familia, a algunos de sus hermanos y hermanas también les gustaba leer. Entre mis primos y primas también hay afición, e, igualmente, mi hija también es buena lectora. Y tengo una sobrina apasionada de la lectura. Tanto como yo misma. Ella también ha empezado a escribir, y les envía a sus primos de Bruselas, por capítulos, los cuentos que va escribiendo. Aunque me parece algo increíble, diríase que la afición se transmite a través de los genes... La casa natal de mi padre, en Mezkiritz, se llama Maistrozarraina...: La casa del maestro viejo.

Las bibliotecas

Empecé a leer en casa y continué en la escuela, pero recuerdo perfectamente cuándo pisé una biblioteca por primera vez. Las monjas tenían una en el colegio, y cuando organizaron unas

Hamar-hamaika urterekin hasi nintzen idazten. Seguru-seguru ez nago, baina behin, urte batzuk geroago, 1971ko data zeraman papertxo bat aurkitu nuen gurasoen etxeko egongelan, edergarri moduan paratutako portzelanazko botila batean (aitak portzelana-lantegi batean egiten zuen lan, eta halako edergarri bitxi asko genituen etxean). Uste dut poema bat zela, eta botilan egoteko arrazoa idazten nuena ezkutatu nahi nuela zen, lotsa ematen baitzidan orduan norbaitek *nire gauzak* irakurtzeak. Gaztelaniaz idazten nuen, orduan ez bainekien euskaraz idazten.

Orditik hona ez diot utzi idazteari, nahiz aldi askotan oso gutxi egin. Baina beti-beti idazten dut zerbait, lerro batzuk besterik ez bada ere. Amets egiten dut idazten segitzearekin eta gehiago idatzi ahal izatearekin.

Orain euskaraz idazten dut, euskaraz sentitzen naizelako erosoan idazterakoan.

Irakurzearen grina

Idazteak munduari buruzko ideiak argitzen laguntzen dit, eta irakurtzeak, ere bai. Ez dut uste irakurri gabe idatz daitekeenik. Idazle bat, lehenik eta behin, irakurle da. Irakurtzeak bidea irekitzen dio idazteari.

Lau urte bete berriak nituela ikasi nuen irakurtzen, eta mundua zabaltzen zela iruditu zitzaidan. Amitxik, amaren amak, irakatsi zidan, etxeko sukaldean, Zilbetin, eta fite ikasi nuen, arras erakargarria iruditu baitzitzaidan. Eskolara irakurtzen ikasita joan nintzen. Amitxiren iritzi, biloba ezin zen joan eskolara leitzen jakin gabe. Idazten eskolan ikasiko nuelakoan nago, baina ez dut gogoan nola gertatu zen. Bakarrik dut gomutan bolalumarekin traketsa nintzela, eta etxera tintaz zikinduta itzultzen nintzela. Eta letra txarra nuela, orain bezala. Hori bai, berehala hasi zitzaidan maistra zoriontzen nire idazlanengatik. Ongi idazten nuen, eta hori asko irakurtzen nuelako zen.

Leitzeko nire zaletasuna handia izan da beti. Uste dut aitarengandik heredatu dudala hori. Aitak, oinarrizko ikasketak besterik ez bazuen ere, asko irakurtzen zuen, eta bere familian, anaia-arrebetan, baziren bera bezain irakurle finak. Lehengusu-lehengusina batzuk ere irakurle ditut. Eta seme-alabetan, alaba da oso zalea. Eta iloba bat daukat, zale amorratua. Ni bezain ero, irakurtzeaz bezainbatean. Eta idazten ere hasi da, Bruselako lehengusu-lehengusinei kapituluka bidaltzen dizkie idazten dituen ipuinak. Harrigarria iruditzen bazait ere, zaletasunak geneen bidez transmititua dirudi... Ezin ahaztu, bestalde, aitaren sortetxea, Mezkitritzen, Maistrozarraina deitzen dela, "*maestro zaharrarena*" alegia...

Liburutegiak

Etxean hasi nintzen irakurtzen, eta eskolan segitu, baina ongi dut gogoan noiz zapaldu nuen lehen liburutegia. Ikastetxean, mojek bazuten bat, eta halako batean eskolaz kanpoko jardue-
ra batzuk antolatu zituzten, larunbat goizean egiteko. Nik *Kirola* eta *Liburutegia* hautatu nituen. Kiroletan txarra nintzenez, hobetzeko egin nuen aukera hori. *Liburutegia* zaletasun hutsez hautatu nuen. Hasiera-hasieratik paradisua iruditu zitzaidan. Orduak ohartu gabe

actividades extraescolares para los sábados por la mañana, yo elegí *deportes* y *biblioteca*. Respecto a los deportes, los elegí porque era mala y quería mejorar. Lo de la biblioteca fue por pura afición. Desde el primer instante me pareció el paraíso. Allí las horas se me pasaban volando. Leía novelas que me correspondían por la edad, como las de Enid Blyton, por ejemplo. También leí a Salgari y a Verne. Después de eso, siempre he percibido las bibliotecas como lugares de un gran valor, y aun la biblioteca más humilde me parece un lugar absolutamente agradable. Las bibliotecas me parecen lugares muy adecuados para las actividades que tengan que ver con la cultura en general y la literatura en particular. Encuentro que son muy interesantes, por poner un ejemplo, los círculos de lectores, pero creo que en las bibliotecas también caben actos y actividades de otro tipo: pueden ser salas de exposiciones de arte, o escenario de recitales literarios, sesiones de música y representaciones teatrales. Por otra parte, las bibliotecas, en mi opinión, además de tener un buen fondo editorial y nuevas tecnologías integradas, deben ser amplias. Amplias espacialmente, pero también respecto al horario. Acabo de estar en Montpellier y he visto en todas partes rótulos indicando la dirección de las mediatecas. Federico Fellini médiathèque, Federico García Lorca médiathèque, Émile Zola médiathèque... Creo que son bibliotecas que tienen integrados otros formatos y nuevas tecnologías. Me parece una buena idea, y me he quedado con las ganas de saber cómo funcionan.

152

Yo compro muchos libros, pero en las casas actuales es difícil encontrar el espacio necesario para albergarlos. Por eso me parece muy interesante disponer de muchas y grandes bibliotecas: permiten que la ciudadanía comparta los libros y extienden la cultura por encima de las limitaciones particulares, incluyendo la de la falta de dinero. Antes he dicho que escribir es una cuestión muy personal, y, en cierta medida, la lectura también lo es, pero las dos actividades tienen una resonancia colectiva, social, y en esa repercusión las bibliotecas son fundamentales. Yo, desde luego, no las contemplo sólo como contenedores de libros, sino como el reflejo de una sociedad y como espacios donde crear cultura.

No sé si en el futuro desaparecerán los libros tal y como los conocemos ahora y serán sustituidos por los libros electrónicos, pero aunque así ocurra, las bibliotecas no deben desaparecer, puesto que las bibliotecas o mediatecas —el nombre no tiene demasiada importancia— son importantísimas en el desarrollo de los pueblos.

¿Qué leer?

De pequeña leía cualquier cosa, todo lo que caía en mis manos, porque no había demasiado material de lectura: el periódico, las revistas religiosas de mi abuela, los libros de cuentos de la escuela, las revistas de cotilleo que la tía guardaba en su casa enviadas a su vez desde San Sebastián por su hermana, tebeos... Era una lectora corriente, aunque no supe hasta mucho después qué era eso de ser una *lectora corriente*, cuando, leyendo a Virginia Woolf, me enteré de que así se le llama —*lector corriente*— a quien no selecciona demasiado sus lecturas. Cuando vine a vivir a Pamplona, mi padre empezó a comprar enciclopedias, y yo las examinaba de arriba a abajo. Y lo mismo hacía con los libros de texto.

pasatzen zitzaizkidan han. Adinari zegozkidan nobelak irakurtzen nituen, Enid Blytonenak eta halakoak. Salgarik eta Vernek idatzitakoak ere irakurtzen nituen, besteak beste. Harez geroztik, beti sentitu izan dut liburutegiak balio handikoak direla, eta liburutegirik xumeena toki ezin atseginagoa jotzen dut.

Liburutegiak oso toki aproposak iruditzen zaizkit kulturarekin oro har eta literaturarekin batez ere zerikusirik duten jarduerak egiteko. Interesgarriak jotzen ditut, esate baterako, irakurle-zirkuluak, baina nik uste dut bestelako ekitaldi eta ekimen batzuk ere egin ahal daitezkeela haieran: arte-erakustokiak izan daitezke, edo literatur-errezitaldiak, musika-saioak eta antzezpenak egiteko eszenatoki. Bestalde, liburutegiek, argitalpenen hornidura ona eta teknologia berriak integraturik edukitzeaz gain, zabalak izan behar dute, ene aburuz. Zabalak, lekuari dagokionez, baina baita ere ordutegietan. Montpellieren izan berri naiz, eta han nonahi mediateka batzuetara joateko errotuluak ikusi ditut. *Federico Fellini médiathèque*, *Federico García Lorca médiathèque*, *Émile Zola médiathèque*... Uste dut liburutegiak direla, baina teknologia berriak eta bestelako bitartekoak ere integraturik dituztela. Ideia ona iruditu zait, eta nolakoak izanen ziren jakin nahian gelditu naiz.

Nik liburu asko erosten ditut, baina egungo etxeetan zaila da liburuetarako behar beste toki izatea. Horregatik iruditzen zait interesgarria liburutegi asko eta handiak izatea: liburuak denon artean partekatzea ahalbidetzen dute, eta kultura hedatzen dute, banakoen mugak, diruarenak barne, gaindituta. Lehen esan dut idaztea oso kontu pertsonala dela, eta irakurtzea ere, neurri batean, hala da, baina bi jarduerak oihartzun kolektiboa dute, soziala, eta oihartzun horretan funtsezkoak dira liburutegiak. Niretzat ez dira, soilik, liburuetarako *edukiontzia*k, gizarte baten ispiluak baizik, eta kultura sortzeko guneak.

Ez dakit zer gertatuko den etorkizunean, liburuak orain ezagutzen ditugun maneran desagertu eta liburu elektronikoen ordezkatuko dituzten, baina hala izanda ere, liburutegiek ez dute desagertu behar. Herrien garapenean, liburutegiek —edo mediatekek, izenak ez baitu axola— garrantzi handia dute.

Zer irakurri

Txikitan edozein gauza irakurtzen nuen, eskura nuen guztia, irakurgai askorik ez baitzegoen: egunkaria, amixiren aldizkari elizkoiak, eskolako ipuin-liburuak, izeba batek Donostiako bere ahizpak igorrita etxean zituen txutxu-mutxuei buruzko aldizkariak, tebeoak... Irakurle arrunta nintzen, nahiz hori, *irakurle arrunta* zer zen, gero ikasi nuen, Virginia Woolfi irakurri nioenean irakurgaiak gehiegi bereizi gabe irakurtzen dituenari *irakurle arrunta* deitzen zaiola... Iruñean bizitzera etorri nintzenean, aita entziklopediak erosten hasi zen, eta nik entziklopedia haiek arakutzen nituen, goiti beheiti. Berdin egiten nuen ikasliburuekin. Irakurle arrunta segitzen nuen izaten. Uste dut inoiz ez diodala utzi hori izateari, nahiz orain gehiago aukeratzeko dudak zer irakurri. Hala ere, pena hartzen segitzen dut, denbora gehiago ez izateagatik, gauza asko gelditzen baitzaizkit irakurri gabe denbora-faltagatik. Izugarria da zenbat gauza dauden munduan, irakurtzeko. Ez dut esanen guztiek merezi dutela, baina gure bizitza mugatuegia da irakur dezakegun guztia irakurtzeko. Gainera, orain, Interneten ere irakur daiteke...

Seguí siendo una lectora corriente, y creo que nunca lo he dejado de ser, aunque ahora me tomo más tiempo a la hora de elegir. De cualquier manera, me sigue dando pena tener tantas cosas pendientes de leer por falta de tiempo. Es alucinante la cantidad de cosas que hay en el mundo para leer. Y no digo que todas merezcan la pena, pero sí que nuestra vida es demasiado corta para todo lo que tenemos para leer. Además ahora también tenemos Internet...

Por otra parte, ser lectora indiscriminada me condujo a otro tipo de literatura. Cuando tenía ocho o nueve años, leí *Un mundo feliz* de Huxley, lo que me causó una honda impresión. Pocas veces me han causado dolor los libros, pero aquél lo hizo. Era demasiado joven para soportar lo que este libro describe. De cualquier manera, la inquietud que me produjo prueba que capté en toda su intensidad el mensaje de Huxley.

Un primo cinco años mayor que yo fue quien me dejó el libro. Mucho después me confesó que los libros que me dejaba eran los que sus profesores le mandaban leer y hacer una reseña. Yo los leía, entonces él me preguntaba de qué iban, y yo se lo contaba. Con mis explicaciones, él redactaba las reseñas y aprobaba en septiembre la asignatura que había dejado pendiente en junio: literatura. Gracias a aquel primo que, aunque perteneciente a la familia de mi padre, resultó tan poco aficionado a la lectura, accedí, siendo muy joven, a la lectura de algunos libros de Baroja y Pérez Galdós. La verdad es que no me gustaron demasiado, a excepción de *Las aventuras de Shanti Andia*.

154 No soy nada sofisticada en cuanto a mis gustos literarios, y los libros que me satisfacen son muy variados. En el colegio leí *La mare au diable*, de George Sand, en francés, y me gustó. Más tarde, ya adolescente, empecé con la poesía: Miguel Hernández, García Lorca, Walt Whitman... Bastante después, cuando aprendí euskera, empecé a leer la poesía de Gabriel Aresti y Joseba Sarrionandía y los textos poéticos de Atxaga. Ahora también me gusta la poesía vasca: Miren Agur Meabe, Kirmen Uribe, Juanjo Olasagarre, Itxaro Borda, Tere Irastortza, Joxe Anjel Irigarai, Angel Erro... Y en castellano, Ángel González.

Respecto a la novela, recuerdo que, estando en la universidad, leí en una noche, de un tirón, *La Consagración de la Primavera*, de Alejo Carpentier. Acabé a las cinco de la mañana. No podía dejarlo. Inmediatamente después leí muchos libros de Carpentier. Si encuentro algo que me guste mucho en un escritor o escritora, enseguida empiezo a investigar en sus trabajos y a leer todo lo que puedo. Me ha pasado con muchos autores y autoras: con diecisiete años y durante todo un año Herman Hesse fue mi preferido, y después me ocurrió lo mismo con otros muchos: con el propio Sarrionandía, con Carmen Martín Gaité y Ángeles Mastretta... Y en cierta medida, con Auster y Saramago.

Por otra parte, a menudo me ocurre que encuentro en un libro una referencia a otro autor y eso dispara mi interés. En el ensayo *Idiaren eraman handia* (en castellano, *Paciencia de Buey*), de Jon Alonso encontré a Diderot y su *Paradoja del comediante*. Busqué el libro y lo leí, primero en castellano y después en francés. Y me gustó. Me suscitó el interés por Diderot y gracias a eso llegué a un ensayo maravilloso en mi opinión, *Regrets sur ma vieille robe de cham-*

Ororen irakurle izateak, bestalde, beste literatur mota batera ere bultzatu ninduen. Zortzi edo bederatzirte nituela, Huxleyren *Un mundo feliz* irakurri nuen, eta inpresio handia egin zidan. Gutxitan egin didate min liburuek, baina hark egin zidan. Gazteegia nintzen liburu horrek deskribatzen duena pairatzeko. Sortu zidan egonezinak, dena den, Huxleyren mezuari bete-betea heldu niola frogatzen du.

Ni baino bost bat urte zaharragoa den lehengusu batek utzi zidan liburua. Askoz geroago, hari udan irakurri eta iruzkinak egiteko irakasleek agintzen zizkioten liburuak uzten zizkidala aitortu zidan lehengusu hark. Nik irakurtzen nituen, hark zertaz zihoazen galdetzen omen zidan, eta nik azalpenak ematen ei nizkion. Azalpenekin, iruzkinak osatzen zituen, eta horrela ekainean gainditu gabeko irakasgaia gainditzen zuen irailan: Literatura. Aitaren aldetikoa izanda ere batere irakurle ez den lehengusu horri esker irakurri nituen, oso gazte nintzela, Baroja eta Pérez Galdosen liburu batzuk. Ez zitzaizkidan gehiegi gustatu, *Las aventuras de Shanti Andia* salbu.

Literatur gustuetan ez naiz batere sofistikatua, eta askotarikoak dira atsegin ematen didaten liburuak. Ikastetxean nengoela, George Sanden *La mare au diable* irakurri nuen frantsesez, eta hura ere gustatu zitzaidan. Gero, nerabe nintzela, poesiari ekin nion: Miguel Hernández, García Lorca, Walt Whitman... Askoz geroago, euskara ikasi nuenean, Gabriel Aresti eta Joseba Sarrionandiaren poesia hasi nintzen irakurtzen, eta Atxagaren testu poetikoak. Euskal poesia gustatzen zait orain ere: Miren Agur Meabe, Kirmen Uribe, Juanjo Olasagarre, Itxaro Borda, Tere Irastortza, Joxe Anjel Irigarai, Angel Erro... Eta gaztelaniaz, Ángel González.

Nobelan, gogoan dut, Unibertsitatean nengoela, Alejo Carpentierren *La Consagración de la Primavera* irakurri nuela gau batean. Goizeko bostak arte. Ezin nuen utzi amaitu arte. Segituan, Carpentierren beste liburu asko irakurri nituen. Idazle baten zerbait asko gustatzen bazait, berehala hasten naiz horren idazlanetan arakatzen eta ahal dudan guztia leitzen. Idazle askorekin gertatu zait: Hamazazpi urterekin, Herman Hesse izan nuen urtebetez kutuna, eta gero autore askorekin gertatu zait: Sarrionandiarekin berarekin, Carmen Martín Gaiterekin, Ángeles Mastrettarekin... Neurri batean, Austerrekin eta Saramagorekin ere.

Bestalde, maiz gertatzen zait liburu batean beste egile baten aipua aurkitu eta horrek interesa piztea. Jon Alonsoren *Idiaren eraman handia* saiakeran aurkitu nituen Diderot eta horren *Komediantearen paradoxa*. Bilatu nuen liburua, eta irakurri nuen, lehen gaztelaniaz, gero frantsesez. Eta gustatu zitzaidan. Diderotenganako interesa piztu zidan, eta horren harira saiakera ene ustez zoragarri bati heldu ahal izan nion, *Regrets sur ma vieille robe de chambre* ize-nekoari. Ironia fina dario horri, eta nik ironia maite dut. Beste saiakera bat Tanizaki japoniarren *Elogio de la sombra*, irakurri nuenean ere, antzeko irudipena atera nuen.

Saiakera ere maite dut. Saiakera literarioa, aldi berean pentsatzeko eta hitzekin gozamina hartzeko ematen duen hori. Seguruenik saiakera gustatzen zaidalako idatzi eta argitaratu dudan liburu bakarra saiakerakoa da. Irakurritakoak zedarriak ematen dizkio sormenaren sorolari.

Eta hizkuntza diferenteetan irakurtzea ere gogoko dut, miragarria iruditzen zait hizkuntzek munduaren berri emateko dituzten baliabideen erakustaldia.

bre. Destila una fina ironía, y eso me gusta. Saqué una sensación parecida cuando leí otro ensayo, *Elogio de la sombra*, del japonés Tanizaki. Me gusta el ensayo. El ensayo literario que ofrece la oportunidad de pensar y disfrutar con las palabras, todo a la vez. Por eso probablemente, el único libro que he escrito y publicado es un ensayo. Las lecturas previas delimitan el jardín de la creatividad.

Y también me gusta leer en diferentes idiomas. Me parece maravillosa la variedad de recursos con que cuentan las lenguas para describir el mundo.

Lenguas

Mis primeros conocimientos de euskera, los más básicos, los adquirí en casa: algunas frases sueltas, poemas y canciones, y, sobre todo, la curiosa forma que tenían de hablar en castellano. Pero lo que es el idioma en sí mismo, no me lo enseñaron. Mi padre era *euskaldun*, y mi madre a medias, pero no encontraban el euskera lo suficientemente útil como para enseñárselo a sus descendientes. Aun así, mi padre acostumbraba a leer en euskera, poemas, canciones y cosas así, incluso sin estar alfabetizado.

156

De pequeña estaba bastante confusa con respecto a los idiomas, porque escribía muy bien en castellano aunque al mismo tiempo hablaba "raro", según decían tanto las monjas como mis compañeras. El castellano que hablábamos en casa era una traducción literal del euskera, de lo cual me percaté cuando, más tarde, aprendí euskera. Ahora soy traductora, y algunas veces pienso que mi profesión está ligada a mis vivencias de infancia. Aprender euskera me aclaró muchas cosas que no entendía sobre mí misma. Me da cuenta de que eran dos los idiomas que tenía en mi mente, y aprendí a distinguirlos.

Al mismo tiempo, para entonces ya había aprendido un poco de francés (en el colegio, sobre todo, nos enseñaban gramática), y el aprendizaje del euskera me hizo mirarlo de otra manera. Más tarde, cuando estudié algo de inglés, también me resultó útil el hecho de haber estudiado euskera anteriormente.

Por eso, no entiendo a quienes se obcecan en poner límites al euskera. Al euskera o a cualquier otro idioma. Además de ir contra un derecho básico de cualquier persona, no es práctico. Lo que está ocurriendo en Navarra es un ejemplo de ello. Los gobernantes no quieren que el euskera viva, y, para ello, utilizan argucias de todo tipo. Por ejemplo, en el campo de la literatura, intentan que quienes escribimos en euskera no seamos visibles, pero con eso no logran impulsar en Navarra la literatura en castellano. Entre otras cosas, porque muchos escritores navarros en castellano no son enemigos del euskera, y eso, el hecho de no ser enemigo declarado del euskera, puede ser motivo para ser marginado en Navarra. El odio a un idioma resulta doloroso, asfixiante y estéril.

No tengo muchas cosas editadas, soy una escritora de segunda fila, y no me veo como una buena escritora. Ni de lejos. Pero en Navarra hay escritores en euskera sobresalientes. Lo dijo Joxemiel Bidador, quien fuera riguroso investigador literario y al mismo tiempo buen escritor. Joxemiel demostró con su libro que en Navarra había mucha gente escribiendo en euskera. Y sí, entre quienes escribimos en euskera, hay muy buenos escritores y escritoras, personas apa-

Hizkuntzak

Euskararen lehen ezagutzak, oinarrizko-oinarrizkoak, etxean eskuratu nituen: esaldi solte batzuk, bertsoak eta kantak eta, batez ere, gaztelaniaz mintzatzeko zeukaten forma bitxia. Baina hizkuntza, bere horretan, ez zidaten erakutsi. Aita euskalduna zen, eta ama erdizka, baina ez zuten baliagarri jotzen euskal hizkuntza, ez, bederen, seme-alabei irakasteko beste. Aitak, hala ere, bazuen euskaraz irakurtzeko ohitura, bertsoak, kantak eta halakoak, batik bat, nahiz alfabetaturik ez zegoen.

Txikitatik, nahasmendu handia nuen hizkuntzekin, gaztelaniaz oso ongi idazten nuelako, baina, aldi berean, "arraro" hitz egiten omen nuen, mojek eta ikaskideek ziotenez. Etxeko gaztelania euskaratik egindako hitzez hitzeko itzulpena zen, horretaz gero ohartu nintzen, euskara ikasi nuenean. Orain itzultzailea naiz, eta batzuetan pentsatu izan dut nire ogibidea txikitako bizipenei dagoela lotuta.

Euskara ikasteak, lehenik eta behin, nire buruaz ulertzen ez nituen gauza asko argitu zizkidan. Nire baitan nituen bi hizkuntzez jabetu nintzen, eta haiek bereizten ikasi nuen. Aldi berean, ordurako ikasia nuen frantsesa apurra (ikastetxean, gehien bat, gramatika irakatsi ziguten) bestela begiratzen lagundu zidan euskara ikasteak. Eta geroago, ingelesa pitin bat ikasi nuenean ere, lagungarri suertatu zitzaidan euskara ikasi izana.

Horregatik ez dut ulertzen zergatik batzuk tematzen diren euskarari mugak jartzen. Euskarari edo beste edozein hizkuntzari. Pertsonen oinarrizko eskubideen aurka joateaz gain, ez da praktikoa. Nafarroan gertatzen ari dena da horren adibide. Agintariak ez dute nahi euskarak aurrera egitea, eta horretarako klase orotako trikimailuak baliatzen dituzte. Esaterako, literaturaren alorrean, euskaraz idazten dugunok ikusezin bilakatzen saiatzen dira, baina horrekin ez dute lortzen gaztelaniazko literaturari bultzada ematea Nafarroan. Besteak beste, gaztelaniaz idazten duten idazle nafar asko ez direlako euskararen arerio, eta hori, euskal kulturaren arerio ez izate bera, baztertua izateko arrazoia bilaka daiteke Nafarroan. Penagarria da hizkuntza bati herra erakustea, penagarria, itogarria eta antzua.

Ni bigarren lerroko idazlea naiz, ez dut gauza handirik argitaratuta, eta ez dut nire burua idazle izugarritzat jotzen, inolaz ere. Baina Nafarroan euskal idazle bikainak daude. Joxemiel Bidador zenak zioen hori, hura literatur ikertzaile zorrotza baitzen, eta aldi berean, idazle ona ere. Joxemielek egin zuen liburuak Nafarroan jende askok idazten duela euskaraz frogatu zuen. Eta euskaraz idazten dugunon artean oso idazle finak daude, literaturaren zale sutuak, langile nekaezinak eta kalitate ukaezineko obrak idatzi dituztenak. Beldur pitin bat ematen dit aipatzen hasteak, norbait ahaztuko zaidalako, baina hartuko dut arriskua: Lehen batzuk aipatu ditut, Jon Alonso, Juanjo Olasagarre, Angel Erro eta Joxe Anjel Irigarai, adibidez, baina hor daude, baita ere, Aingeru Epaltza, Peio Lizarralde, Castillo Suarez, Mikel Taberna eta, gazteagoen artean, Hedoi Etxarte. Laura Mintegi ere, nahiz Bizkaian bizi, Nafarroako euskal idazle gisa jo daiteke... Gaztelaniaz ere Nafarroak idazle handiak eman ditu. Pablo Antoñana da adibide esanguratsuena, eta hor daude, baita ere, Miguel Sánchez Ostiz eta Fernando L. Chivite. Badira gehiago, jakina, orriak eta orriak bete zitezkeen haien izenekin, baina niri inportante-

sionadas de la literatura, trabajadoras incansables y autoras de obras de una calidad innegable. Me da un poco de reparo empezar a dar nombres, porque me olvidaré de alguno. Pero me arriesgo: Antes ya he citado algunos, Jon Alonso, Juanjo Olasagarre, Angel Erro y Joxe Anjel Irigarai, por ejemplo, pero ahí están también Aingeru Epaltza, Pello Lizarralde, Castillo Suarez, Mikel Taberna y, entre los más jóvenes, Hedoi Etxarte. También Laura Mintegi que aunque viva en Vizcaya se puede considerar escritora navarra... Navarra también ha dado grandes escritores en castellano. El ejemplo más claro es Pablo Antoñana, pero también están Miguel Sánchez Ostiz y Fernando L. Chivite. Hay más, desde luego, podrían llenarse páginas y páginas con sus nombres, pero lo más importante, desde mi punto de vista, es el ambiente que todas esas personas pueden crear si se juntan, influyéndose mutuamente. Y me parece lamentable ver cómo quienes gobiernan, en su voluntad de borrar la cultura vasca, niegan el futuro cultural de Navarra... Porque al fin y al cabo, la cultura en sí misma es tan múltiple como indivisible. Igual que las personas y el mundo.

Muchas biografías juntas hacen la historia

He hablado de la lectura y la escritura, de la literatura en sentido amplio, y he intercalado algunas pinceladas biográficas, porque desde mi punto de vista, biografía y literatura están entrelazadas. Me parece imposible hablar de literatura y no mentar la manera de vivir o las experiencias vitales. Pero estoy segura de que muchos componentes de mi biografía no son exclusivamente míos. Quiero decir que quienes coinciden en una época y lugar concretos tienen las mismas experiencias, o muy similares, y todas ellas conforman la pequeña historia de la sociedad. Desgraciadamente, no ocupan lugar en la Historia con mayúsculas.

158

En el caso de los escritores y escritoras, me parece interesante que aporten en sus obras datos de su biografía y del ambiente social donde habitan.

Y también me parece interesante que las escritoras y escritores se relacionen entre sí, así como con el mundo donde habitan y con las personas que tienen por vecinas. Esas relaciones hacen que su trabajo sea más fecundo, y así lo que escriben puede enriquecer las vidas de la gente. Por eso me da un poco de pena que, viviendo tan cerca, no hagamos más cosas en común. Comprendo que no tengamos un ambiente cultural muy receptivo y que el ritmo de vida que llevamos no nos ofrece muchas ocasiones de reunirnos, pero sería estimulante que juntos pudiéramos hacer algo para animar el escaso ambiente cultural que hay en Navarra. Endulzaría nuestra vida y beneficiaría a la sociedad.

ena iruditzen zait banako horiek guztiek elkarrekin eta elkarri eraginda sortzen ahal duten giroa. Eta tamalgarri jotzen dut agintariak euskal kultura ezabatu nahian Nafarroako etorkizun kulturalari uko egiten diotela ikustea... Kultura, berez, askotarikoa bezain banaezina baita. Pertsonak eta jendartea bezala.

Biografiak, elkar hartuta, historia egiten dute

Irakurtzea eta idaztea hartu ditut mintzagai, literatura, zentzu zabalean ulertuta, eta tartean biografia sartu dut. Niretzat, biografia eta literatura txirikordaturik baitoaz. Literaturaz mintzatzea eta bizimodua, bizi-esperientzia, ez aipatzea ezinezkoa iruditzen zait. Baina seguru nago nire biografiako kontu asko ez direla nireak bakarrik. Esan nahi baitut esperientzia berak edo antzekoak izaten ditugula toki eta garai jakin batzuetan aldi berean bizi garenok, eta horiek jendartearen historia txikia osatzen dute, zoritxarrez halakoek toki gutxi hartzen badute ere, Historia handian.

Idazleen kasuan, interesgarria iruditzen zait beren biografiaren zein bizileku duten giro kolektiboaren berri ematea idazten dituzten gauzetan.

Eta interesgarria iruditzen zait, baita ere, idazleek harremanak egitea elkarrekin eta bizileku duten munduarekin eta bizikide dituzten gizon eta emakumeekin. Erlazio horiek idazleen lana emankorragoa bilakatzen dute, eta idazleen lanek guztien bizitzak aberasten ahal dituzte.

Horregatik, pena pitin bat ematen dit elkarrengandik hurbil bizi garen idazleonean gauza gehiago ez egiteak elkarrekin. Ulertzen dut kultur giroa ez dugula oso abegikorra, eta daramagun bizimoduak ez digula elkartzeko abagune handirik eskaintzen, baina oso pozgarria izanen litzateke Nafarroan dagoen kultur giro urria alaitzeko zerbait egin ahal izatea elkarrekin. Gure bizimodua eztituko luke horrek, eta gizarteari onura ekarriko lioke.